

# Frantziako Administrazioa eta lurralde egitura bat bi atentaturen jomuga Korsikan

*Bi lagun arin zauritu zituen Ghisonacciako ekipamendu bulegoko bonbak*

Allande Sokarros / Baiona

Urte berriko lehen atentatuak gertatu ziren atzo Korsikan. Batak Frantziako ekipamendu administrazioa izan zuen jomugatzat Ghisonaccian, eta bigarrenak, aldiz, Korsikako Asanbladak sortutako Ekonomia Garapen Agentzia. Bestalde, aske geratu zen atzo iragan azaroan espetxe zigor batera kondenatua izan zen Etienne Santucci STC sindikatuko idazkari nagusia.

Bi lagun arin zaurituak izan ziren Ghisonaccian (Korsika Garaia) asteartetik asteazkenarako gauean gertatutako atentatu baten ondorioz. Gauerdia pasatuxea zelarik bonba indartsu baten leheritzeak kalte handiak eragin zizkion Korsika Garaia Ekipamendu Zuzendaritzaren egoitza nagusiari.

Poliziak emandako datuen arabera, lehergailua 15 kilo ingurukoa zen, eta administrazio egoitzaren ondoan kokatutako etxean bizi ziren bi lagun arinki zaurituak izan ziren, beira puskakinekin. Inguruneke etxe guztien kristalak ere apurtuak egon ziren eta Jandarmeriak zioenez, ehun bat bizilagunek euren etxetik kanpo amaitu behar izan zuten gaualdia. Jandarmen arabera beti, baliteke ere atentatuaren ondorioz jasadako kalteengatik inguruneke etxebizitza ugari antolaketa lanak beharko zaizkiela egin, egoiliarrik berriz hartu baino lehen.



Aiacciuko Nekazaritza administrazioako bulegoak, 1996ko abuztuan atentatua jasan ondoren.

Bigarren atentatua Hego Korsikan zen gertatu, hain zuzen ere Aiacciu hiriburuan bertan. Astearte gaueko 22:50etan, eztanda handi bat entzun zen hiri osoan. Korsikako Ekonomia Garapen Agentziaren (ADECen) egoitzaren aurka egin zen atentatua eta kalte oso handiak eragin ditu. Egoitzan bertan eta ingurune hurbilean inor bizi ez denez, leherketa honek ez zuen nihoren zauritzerik eragin. Ez da lehen aldia ADEC erakundearen egoitza jomugatzat hartua dena; izan ere, Korsikako erakunde armatuek behin eta berriro salatu nahi izan dute Korsikako Lurralde Asanbladaren menean dagoen egitura honek ez duela uhartearen benetako garapen ekonomi-

korik bultzatu eta eskuin zein ezkerreko klanen onurarako jokabide bat besterik ez duela eraman.

## Etienne Santucci askatu dute

Beste gertakaririk ere izan zen atzo Korsikan. Aipagarriena izan zen Etienne Santucci, Korsikako Langileen Sindikatuko (STC) idazkari nagusia, aske geratu zela, hilabete bat eta erdi preso egon ondoren. Santucci, zortzi hilabeterako espetxe zigorrera kondenatu zuen, 1998ko azaroaren 26an, Aiacciuko auzitegi korrekzionalak. Korsikako bigarren sindikatu handiena den STCko idazkari nagusiari egotzi ziotena zen «bortizkeriaz

jokatzea, ondasun publikoak andeatezea, eta hauteskundeak egitea galaraztea». Gaztigu hau eman zioten Roland Cecchi Tenerini Korsikako Osasun eta Elkartasun Zuzendaritzako arduradun nagusiak egindako auzi-salaketaren ondorioz.

1998ko azaroaren 19an, bi gizonek borroka bat izan zuten, STCko kideek DRASS erakunde publikoko Aiacciuko egoitzan egiten ari ziren langile ordezkaritzako bozak galarazi nahi izan zituztelarik. Korsikako Langileen Sindikatuak salatu nahi izan zuen Administrazioak debekatu izana DRASS erakunde langileen ordezkaritzako bozetan parte hartzea, Frantzia osoan ordezkatua ez den sindikatua delako aitzakiaz.

## Faborito nagusirik ez dago Rhoneko eskualdeburuaren aukeraketan

■ Lehen itzulian boto gehiena lortu arren, ezkerrek kendu dezake ondoren bere hautagaia

A.Sokarros / Baiona

LAU hautagai, eta behar bada bost ere, aurkeztuko dira gaur, lehen bozkalditik, Rhone eskualdeko presidente kargura. Estatu Kontseiluak, iragan abenduaren 9an, bere aukeraketa deuseztu zuen Charles Millonek hasieratik erran zuen aurkeztuko zela berriro. RPR eta UDFko aginteek, azkenean, Anne-Marie Comparini (UDF) sustatzeko erabakia hartu zuten iragan astean. Alderdi sozialistak, berriz, Jean-Jack Queyranne izendatu du hautagai izateko, joan zen martxoaren 20an bezala. Queyranne izango da, gainerat, ezkerreko indar guztien kandidatua. Azkenik, atzo jakin zen Bruno Megret Fronte Nazionaleko ordezkari nagusi ohiaren jarraitzaile den Denis de Bouteiller lehiatuko dela gaurko bozketaren lehen itzulian behintzat. Megreten aldeko baten hautagaitzari aurre egiteko xedez, aldiz, oso litekeena da Jean-Marie Le Penen aldekoa den Bruno Gollnischek jakiterat eman dezan bera ere lehiatuko dela lehen bozkaldian.

Gauzak horrela, Queyranne litzateke aurrean irtengo bozketaren lehen txandan. Ondorengo bozkaldietan, ordea, zer gertatuko den aurreraterik ez dago.

## laburrean

### E U R O P A

■ **Jacques Santerrek ez du dimitituko**  
JACQUES SANTER Europako Batzordeko presidentea atzo iragarri zuen ez duela dimititzeko asmorik, bere taldeari ustelkeria eta iruzurra leporatzen zaion arren. Gaur zortzi, talde sozialistak Santerren aurka aurkeztutako zentsura mozioa eztabaidatuko dute Europako Legebiltzarrean. Zentsura horrek aurrera egitea oso zaila da, bi hereneko gehiengoz onartu behar delako, baina litekeena da zigor gogorra jasotzea Santerrek. Presidenteak ez ezik, beste komisario guztiek ere ukatu egin zituzten haien aurkako akusazioak. x

### F R A N T Z I A

■ **Zapi islamikoaren polemika berriz piztu da Normandian**  
FLERS (Normandia) eskualdeko hainbat ikastetxek manifestazioa egingo dute bihar neska musulmanek zapi islamikoa ematearen aurka. Eguberrietako oporren ondotik, bi neska musulman burua estaltzeko zapiekin agertu dira klasera. Ikastetxeko langileek ez dituzte onartu nahi, ikur erlijiosoak debekatuta daudelako. x

■ **Jospinek amore eman du hautetsi karguen pilaketan**  
LIONEL JOSPIN lehen ministroak onartu egin zuen atzo hautetsi kar-

guen pilaketaren legegaiak aurrera egiteko oso aukera gutxi duela, Senatuak eta Jacques Chirac presidentek oztopatzen dutelako. Legegaiak debekatu egin nahi zuen aldi berean legebiltzarkide eta alkate izatea, baina eskuinak ez du halakorik onartu nahi eta askoz murrizketa txikiagoa proposatu du. Jospinek esan ezein aurrea pausu onartzeko prest dagoela. x

### I P A R I R L A N D A

■ **Bost zauritu hiru erasotan**  
TALDE loialista batek jarritako lehergailu batek eztanda egin zuen atzo Magherafelt herriko kirol club batean. Leherketa txikia izan zen eta zauri arinak eragin zizkion langile bati. Belfas-

teko Lenadoon auzoan, berriz, 27 eta 29 urteko bi laguneri hanketan tiro egin zieten. Donegoren, bost lagun etxe batean sartu eta barruan zeuden emakumea, haurra eta bi gizon metaluzko barra batekin jipoitu zituzten. x

### V A L E N T Z I A

■ **Epaileen %60k dakite katalanez, edo ikasteko asmoa dute**  
VALENTZIAN lan egiten duten epaileen %60ak badaki valentzieraz edo katalaren dialektu hori ikasteko asmoa erakutsi du, atzo Generalitateak jakinarazi zuenez. 274 magistratuetatik, 87k ikasiko dute hizkuntza ikasturte honetan eta beste 78k dagoneko badakite. x